



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA OROÑOZ
2025/12/15



Basaburuko Udala

CIF P 3104900 J

31866-Jauntsarats (Nafarroa)



SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/12/15

2025EKO URRIAREN 29AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2025eko urriaren 29an, arratsaldeko 19:00tan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia Oronoza Ikatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Iker Isiegas, Alaia Etayo, Julen Beunza, Javier Auza, Mikaela Elizalde.

BERTARATU EZ DIRENAK: M^a Mar Ansorena.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du gai zerrendan dauden gaiak lantzearekin

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Irailaren 24ko ohiko batzarraren akta onartu dute bildutakoek, batzarre deialdiarekin batera bidali dena

2.- Alkate ebazpenak.

Ondoren zehazten diren alkate ebazpena onartu ditu alkateak azkeneko hilabete honetan:

-2025/102 alkate ebazpena onartuz Igoako 9. Poligonoko 305. Lursailean egurtegia egikaritzeko obra baimena.

- 2025/103 alkate ebazpena onartuz 2025. urteko Zirkulazio zergaren dagokion zatiaren itzultzea 9955 KTX matrikuladun autoa behin betiko baja emateagatik.

-2025/104 alkate ebazpena onartuz Bureau Veritas enpresak aurkeztutako aurrekontua, eskola eta Apeztegi berriko eraikinetan dauden igogailuen ikuskapena egiteko, aurrekontua 326.26 eurokoa da.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2025/12/15



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/12/15

2025/105 alkate ebazpena onartuz Mikel Aranburu Benitok aurkeztutako eskaera eta baimena ematea Luzia Goñi Kultur Etxeko anitzetako gela erabiltzeko ostiraletan 10:00etatik 11:30etara yoga klaseak emateko 2025eko urritik 2026ko ekainera.

-2025/106 alkate ebazpena onartuz Martin Perurena Belzak aurkeztutako eskaera eta baimena ematea udal polikiroldegia erabiltzeko irailaren 19 eta 26an 18:00etatik 19:00etara esku pilota ikastaroa burutzeko eta iraila eta urriko ostegunak 17:00etatik 19:00etara bizikleta klaseak emateko.

- 2025/107 alkate ebazpena onartuz Iberdrola Taldearen I. enpresak aurkeztutako eskaera onartzea eta Igoa- Erasun eta Irurtzun-Basaburua artean ixteko ETko linea berriaren proiektuaren egikaritzea bi urtez luzatzea.

-2025/108 alkate ebazpena onartuz Jesús Arregui Indacoecheak aurkeztutako eskaera onartzea eta baimena ematea Aizarotzeko depositoarengatik inguruan dagoen zuhaitzaren egurra ustiatzeko.

-2025/109 alkate ebazpena Maria Luisa Astiz Olagüeri i desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatzeko txartela emateko.

- 2025/110 alkate ebazpena onartuz Olhanzabal guraso elkarteak egindako eskaera eta hortaz baimena ematea Jaunsaratsen dagoen udal polikiroldegia erabiltzeko eskaera urritik maiatzarainoko asteazkenetan 16:15etatik 17:15etara mutikirolak ikastaroa burutzeko.

-2025/111 alkate ebazpena onartuz GFM Zerbitzuak enpresak IFK B71198543 zenbakidunak aurkeztutako aurrekontua salaketa-kanalen zerbitzua instalatzeko eta abian jartzeko, 950 eurokoa BEZ kanpo.

- 2025/112 alkate ebazpena onartuz udal salaketa kanalaren arduradun bezala izendatzea, idazkari funtzioa betetzen duen pertsona izendatzea.

-2025/113 alkate ebazpena ez Ibai Miqueok eskatutako obra baimena, aurkeztutako eskaera ez datorrelako bat udal planaren araudiarekin.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte egindako alkate ebazpenak.

3.- Beramendiko 2. Poligonoko 134. Lursailerako udal planaren egiturazko aldaketa. Hasierako onepena.

Udal planaren aldaketa honen helburua da azaltzen du alkateak Beramendiko 134. Lursailerako 38.11 m2 egun landa erabilera dutenak hiri erabilera pasatzea, ondoren eta ondoan dagoen 41. Lursailerako metroekin elkartzeko. Bi jabeek aipatutako metro horien salerosketa adostu dute eta gauzatu ahal izateko, hots 135. Lursailetik bereizi eta 41. Elkartzeko, lehenik klasifikazio bera izan behar dute lurrek.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2025/12/15

SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/12/15

Udal arkitektoak baiezko txostena egin du 25/0552. Txostena, bertan adierazten da, behin parte prozesua bukatzen denean ez dagoela oztoporik hasiera batez onartzeko aurkeztutako aldaketa. 2017/1 Foru Dekretu Legegilearen 77 eta 78. Artikuluari jarraituz non adierazten den zein de izapidetzeko prozedura:

77. *artikulua.* *Prozedura.*

1. Planen berrikuspena bat etorriko da planak izapidetzeko eta onartzeko adierazitako xedapenekin.

2. Udal Plan Orokorren antolamendu egituratzaileko zehaztapenen aldaketa foru lege honen 71. artikuluan ezarritako prozeduraren arabera egingo da, salbuespen hauekin:

a) Tramitazioa zuzenean hasiko da udalak aldaketaren hasierako onespeneren bidez, herritarrek parte hartzeko prozesu baten ondoren, foru lege honen 7. artikuluen arabera *eska daitekeen kasuetan.*

b) Ez da beharrezkoa izango 71. artikuluan aurreikusitako Lurraldearen Antolamendurako *Estrategia* eta *Eredua.*

c) Lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eskumena duen sailak aldaketak eragindako sektore-txostenak baino ez ditu eskatuko.

d) Jendaurrean jartzeko epea hilabetekoa izango da.

e) Lurraldearen antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eskumena duen saileko titularrak bi hilabeteko epea izango du behin betiko onespenera emateko.

3. Udal-plan orokorrean jasotako antolamendu xehatuko zehaztapenen aldaketa 72. artikuluan adierazitako prozeduraren arabera egingo da, ekimen publiko edo pribatu bidez, hargatik eragotzi gabe plan partzialek, plan bereziek eta hiri-jarduketako plan bereziek antolamendu xehatuan egiten dituzten aldaketak.

4. Plan Partzialetako, Plan Bereziatako, Hiri Jarduketako Plan Bereziatako eta Xehetasunezko Azterketetako zehaztapenen aldaketa horiek onartzeko aurreikusitako prozeduraren arabera egingo da.

5. Plangintzaren zehaztapenak administrazioaren isiltasunez behin betiko onartzeak ezin izango du urratu legeetan, lurralde-antolamenduko tresnetan eta goragoko mailako hirigintza-planetan xedatutakoa.

Bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartze dute:

-Hasiera batez onartzea Beramendiko 2. Poligonoko 1345. Lursailerako egiturazko udal planaren aldaketa.

-Erabaki hau 2017/1 FDL-aren 77. Artikulua jarraituz Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea agindu, eta 30 egun baliodunen epean jende aurrean egotea alegazioak jartzeko epea irekiz.

- Erabaki hau sustatzaileari jakinarazi.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORIOZ
2025/12/15



SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/12/15

4.- Basanet elkarte merkantila. Estatutuen aldaketa.

Alkateak azaltzen du eguneko egoitzaren kudeaketa Basanet elkarte merkantilak egingo duela eta horretarako egun dituen estatutuak aldatu behar dira eta horren izapidetzeak egin.

Aldaketa 3 eta 4. Artikuluetan datza, non zehazten diren elkartearen helburuak. Egun horrela daude finkatuak:

Aldaketa baino lehen horrela zeuden idatziak aipatutako bi artikuluak:

“Artículo 3

La finalidad de la sociedad es lograr una mayor eficacia en la acción municipal. Para ello, la sociedad tiene por objeto la instalación y explotación de redes o la prestación de servicios de comunicaciones electrónicas del Ayuntamiento de Basaburua.

Artículo 4

Las actividades enumeradas en el artículo anterior podrán ser realizadas por la Sociedad de modo indirecto, a través de su participación en cualquier tipo de asociación, con o sin personalidad jurídica, de objeto análogo o idéntico”.

Aldaketarekin horrela gelditzen dira:

Artículo 3

La finalidad de la sociedad es lograr una mayor eficacia en la acción municipal.

Para ello, la sociedad tiene por objeto la prestación de los siguientes servicios:

-La instalación y explotación de redes o la prestación de servicios de comunicaciones electrónicas del Ayuntamiento de Basaburua. Su código CNAE es 6110.

-Desarrollo y gestión de servicios sociales de cualquier índole: residenciales, estancias diurnas, centro de día, talleres y programas de promoción de la autonomía, comedor social, y cualquier otro que pueda generar un beneficio en la propia comunidad. Su código CNAE es 8811.

-Prestación de servicios o labores auxiliares en instalaciones en las que se presten servicios principales de carácter cultural, educacional o deportivo. Su código CNAE es 9311, 8551, 8552 y 8121.

La sociedad en cuestión será considerada a todos los efectos un medio propio y servicio técnico del Ayuntamiento para poder encomendarle la prestación de servicios que acuerde, dentro de su objeto social.

Artículo 4

Las actividades enumeradas en el artículo anterior podrán ser realizadas por la Sociedad de modo indirecto, a través de su participación en cualquier tipo de asociación, con o sin personalidad jurídica, de objeto análogo o idéntico.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2025/12/15



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/12/15

Hortaz bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Onartzea hasiera batez Basanet elkarte merkantilaren estatutuen aldaketa eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legaren 192. eta 197. artikuluetan, Toki Araubidearen arloan indarra duten xedapenen Testu Bategina onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 97. artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 85.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz, hilabeteko 30 egun baliiodunen epean.**

- **Nafarroako Aldizkari Ofizialean erabaki hau argitaratua izan dadin agindu.**

5.-Bake epaile ordezkoa.

Alkateak azaltzen du aurreko batzarrean bake epailearen ordezkoa izendatu ondoren, erabaki hau Nafarroako Justizia Epaitegi Nagusira jakinarazi zela eta horren erantzun bezala, adierazi dute, ezin dela izendatu Iraultza Guillen Garcia Saez , berau jada Berriozarko bake epaile ordezkoa izendatua dagoelako.

Hortaz bildutakoek berriro hautaketa prozesua martxan jartzeko erabakia hartzen dute izendapen berria egiteko, 1995/3 Bake epaile izendatzeko araudiaren 5.2 artikulua jarraituz. Hortaz interesdunak eskaerak aurkezteko, Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarkia jarriko da.

6.- Zerbitzu anitzetako barne promozioaren prozedurari hasiera ematea.

Alkateak azaltzen du D mailatik C mailara pasako dela zerbitzu anitzetako lanpostura prozedura honekin. Justifikatua dago maila aldaketa hau, lan gehigarriak eta ez laguntzaileak egiten dituelako.

Hortaz prozesua abian jartzeko, izapidetzea arautuko duen baldintza plegua aztertzen dute bildutakoek eta balorazio mahia izendatu behar denez, bildutakoek artean hauek osatuko dutela erabaki dute aho batez:

Santos Etxegia, lehendakaria

Mikaela Elizalde eta Javier Auza, bokalak.

Hortaz bildutakoek aho batez onartzen dute alde batetik zerbitzu anitzetako barne promozioaren prozesua abian jartzea prozesua eramango duen balorazio mahaia izendatuz eta oinarriak onartuz.

7.- Garbiketako lanpostuetarako zerrendak. Prozesuari hasiera ematea.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2025/12/15

Alkateak adierazten du kasu honetan kontutan hartuta garbiketarako ordezkapenak egiteko ez dagoela zerrendarik, hauek osatzea duela helburu prozesuaren hasiera honek. Prozesua arautzeko oinarriak prestatu dira ere eta balorazio mahaia izendatu behar da. Bildutakoek erabaki dute osaketa hau izatea:

Santos Etxegia lehendakaria

Iker Isiegas eta Alaia Iriarte bokalak.

Hortaz bildutakoek aho batez onartzen dute alde batetik garbiketa lanpostuetarako zerrendak osatzeko prozesua abian jartzea prozesua eramango duen balorazio mahaia izendatuz eta oinarriak onartuz

8.- Plan zaharreko ordenantzen aldaketa udal plan berrira egokitze.

Alkateak azaltzen du udal plan berriaren tramitazioa luzatzen ari dela, jada Nafar Gobernura bidali da baina ez da erantzunik jaso. Kontutan hartuta plan berriaren ordenantzetan badaudela zenbait aldaketa plan zaharrarekiko, proposatzen die batzarkideei udal planaren aldaketa bidez ordenantza hauek aldatzea eta egokitzea hainbat artikulu plan berrira. Aldaketak hauek izango lirateke:

- Nukleo historikotik kanpo solairu bakarreko etxebizitzak onartzea.

- Fatxadako material bezala ez dira onartuko harri itxura duten aplakatuak, harri forma ez badute.

- Pertsianak onartzen dira, harriz inguratutako leihoetan. Ez dira derrigorrezkoak kontraleihoak jartzea beti hortaz.

- lursailen itxidurak egiteko, ezin dira alanbre arantzadunak erabili , bai aldiz espezie autoktonoko heskaiak.

- Eraikin batean etxebizitza bat baino gehiago egiteko Hirigintza Jarduketa Planaren tramitazioa kendu.

Bildutakoek proposamena ontzat hartzen dute eta hortaz eta 2017/1 Foru Dekretu Legegilearen 78. Artikulua jarraituz bildutakoek aho batez onartzen dute udal planaren ordenantzen aldaketa, 18, 54, 56 eta 60. Artikulueterako eta erabaki hau



BASABURUA

Egiaztapen-aseguru kodea: MDCA AAVP W4ER ZHUL 73MQ

2025-10-29 akta - SEFYCU 254630

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://basaburua.sedipualba.es/>

12tik 6 orrialdea



SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORIONOZ
2025/12/15



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/12/15

Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu hilabeteko epean alegazioak jartzeko aukera irekiaz.

Gai zerrendatik kanpo beste bi gai daudela aztergai adierazten du alkateak, alde batetik kontribuzioak hobariak arautzen ordenantzaren hasierako onespena eta bestetik Israelekin lotura duten enpresekin kontratuak eta laguntzak etetea.

Bildutakoek aho batez onartzen dute bi gaiak gai zerrendan sartzea:

Kontribuzioan hobariak arautzen ordenantza. Hasierako onespena.

Alkateak Ogasun Batzordeko lehendakariari hitza ematen dio. Mikaela Elizalde azaltzen du Ogasun Batzordearen helburua ordenantza fiskalak egitea dela eta horretarako Biderka aholkularitza juridiko zerbitzuarekin elkarlanean egon da. Azkenean adostu dutena da kontribuzioko zergaren inguruan hobariak izateko ordenantza izapidetzea.

Azaltzen du hobariak arautzeko taula bat landu dutela sarrera desberdinak dituzten familiek hobari desberdinak izateko.

Bildutakoek aho batez onartzen dute hasiera batez, 1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazio Foru Legearen 325. Artikulua jarraituz, kontribuzioaren zergan hobariak ezartzeko ordenantza eta erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzen dute aipatutako artikularen arabera hilabeteko epean jendeaurrean egon dadin espedientea.

Israelekin harremanak hausteko erabakia

Alkateak irakurtzen du EH Bildu elkartetik bidalitako adierazpena, non azaltzen den urriaren 18an alkateen bileran adostu zela, Israelekin harremanak etetea. Hau nola gauzatzeko irizpideak finkatu zituzten ere bertan.

Udalek haien eskumenen baitan hartu ahal dituzten erabakien artean hauek daude:

- Kontratuak esleiteko prozedura berrietan klausula berria jartzea, empresa edo elkarteek Israelekiko loturak ez dutela adierazten duen zinpeko aitordpena aurkeztea.
- Martxan dauden konttautak aztertu eta Israelekin lotura dutenak eten edo ez luzatuu.
- Israeleko Estatua edo haien konplizeak parte hartzen duten ekimeneta ez parte hartu.
- Ez lagundu diru edo logitikarekin israledarrak parte hartzen duten ekimenak, ez badute pulikoki Israelen gobernuaren politika gaitzesten.

Bildutakoek gaia eztabaidatu ondoren ontzat ematen dute proposamena eta hau onartzea erabaki dute, bileran hartutako erabakia gauzatzeko pausoak emanen direla erabakiz.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2025/12/15



SINATZAILEA

La sekretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/12/15

9.- Mozioak.

Ultzamaldeko gizarte zerbitzuen mankomunitatetik azaroaren 25eko emakumeen nazioarteko egunaren inguruko adierazpen instituzioanala bidali du. Ondoren irakurri eta transkribatzen da:

"Berriro ere, azaroaren 25ean, Nafarroako toki eta lurralde entitateek ahotsa altxatzen dugu emakumeen kontrako indarkeria matxista mota guztiak gaitzesteko. Indarkeriarik gabeko mundu bat aldarrikatzen dugu, non emakumeak eta neskak beldurrik gabe, askatasunez eta eskubideen berme osoz bizi daitezkeen. Aurten, indarkeria-mota berrienetako, eta, aldi berean, ikusezinenetako batean jarriko dugu arreta: nesken eta emakumeen aurkako indarkeria digitala. "INDARKERIA MATXISTA DIGITALAK BADITU ONDORIO ERREALAK" lelopean, azpimarratu nahi dugu Interneten eta ingurune digitaletan gertatzen denak ondorio sakon, ukigarri eta mingarriak dituela eta ezin dela alde batera utzi. Indarkeria matxista aldatu egiten da eta garaietara egokitzen da, baina gure aldarrikapenak eta gaitzespenak ukiezinak izaten jarraitzen dute. Gaur egun, ez dago indarkeria digitalaren definizio unibertsal bakar eta uniformerik. Eboluzioan dagoen kontzeptu bat da, teknologia berrien, ingurune digitalen, sare sozialen edo Interneten bidez eragindako indarkeria matxistako jokabideak biltzen dituen. Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunak indarkeria digitala eraso-modu lehenetsizat hartu du berriki, eta neurri espezifikoak hartu ditu indarkeria prebenitzeko, detektatzeko eta zigortzeko. Askatasuna, osotasun fisikoa eta morala, berdintasuna eta duintasuna bezalako oinarritzko eskubideak urratzeaz gain, indarkeria mota hori haratago doa eta emakume gazteei eta espazio publikoan parte hartzen dutenei eragiten die bereziki. Era askotara agertzen da: ziberjazarpena eta gorroto-diskurtsoak, bikotearen kontrol digitala, onartu gabeko sextinga, groominga, sextorsioa, deepfakea bidezko irudien manipulazioa edo "mendeku pornografia" delakoa. Inpaktuak sakonak eta errealak dira: antsietatea, depresioa, isolamendua, autozentsura eta espazio digitalak uztea. Indarkeria honek emakume gazteen ahotsak isiltzen ditu eta esfera publikoan duten parte-hartzea mugatzen du, genero-desberdintasunak indartuz. Indarkeria birtualak ondorio nabariak ditu, milaka emakumeren osasunean, segurtasunean eta biziaukeretan eragiten dutenak. Datuak kezkagarriak dira eta arazoaren garrantzia berresten dute. NBEk adierazi du mundu mailan emakumeen % 73k baino gehiagok jasan duela indarkeria Interneten, eta 18 eta 24 urte bitarteko neska gazteek jazarpen, sexu-jazarpen eta mehatxu fisikoak jasateko arrisku handia dutela. Europar Batasuneko 28 herrialdeetan, bederatzi milioi emakumek jasan dute lineako indarkeria 15 urte zituztenetik. Gainera, bostetik bat online jazarpena eta abusua zigortzeko aukera gutxi duten herrialdeetan bizi da. Era berean, indarkeria digitalaren biktima izan direnen % 28k Interneteko jardura nahita murriztea erabaki dute, eta sexuedukia duten irudi intimoak baimenik gabe zabaltzen dituzten biktimen % 90 emakumeak dira.

Horregatik, Nafarroako toki eta lurralde entitateek konpromiso hauek hartzen dituzte: 1. Emakumeen aurkako indarkeria digitala indarkeria matxista gisa onartzea. 2. Tokiko eta lurraldeko eremuan lan egiten duten profesionalen prestakuntza indartzea (polizia, gizarte-zerbitzuak, hezkuntza, osasuna, etab.), indarkeria digitaleko kasuak goiz eta eraginkortasunez antzeman eta jardun ahal izan dezaten. 3. Herritarrei, bereziki gazteei eta nerabeei, zuzendutako sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainak sustatzea, teknologien erabilera arduratsu eta seguruari buruz, genero-ikuspegitik. 4.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONIZ
2025/12/15

SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/12/15

Indarkeriarik eta diskriminaziorik gabeko espazio digitalak sustatzea, ikastetxeekin, komunikabideekin eta herri eragileekin elkarlanean. 5. Indarkeria digitalaren biktima diren emakumeen arretarako baliabide eta protokolo espezifikoak bultzatzea. 6. Beste erakunde, sare, elkarte eta mugimendu feminista batzuekin lankidetzan aritzea, indarkeria matxista digitala desagerrarazteko bidean modu koordinatuan aurrera egiteko. 7. Indarkeria matxista digitalaren prebentzioa, detekzioa, arreta eta erreparazioa sustatzen duten tokiko politika publikoak ezartzea. Azaroak 25 honetan, gizarte osoa gonbidatzen dugu rol aktiboa har dezan ingurune digital, benetan aske, berdintasunezko eta segurua eraikitzeko. Konpromiso kolektiboaren bidez bakarrik lortu ahal izango dugu emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko gizartea.

Bildutakoek aho batez onartzen dute irakurritako mozioa

Ondoren eta gai berdinarekin lotuta, EH Bldu elkartetik jasotako mozioa irakurri eta traskribatzen da:

Urtero EAEn Eudelek proposatutako mozioa izaten dugu, eta Nafarroan, Berdintasun teknikarien sareak proposatzen duena. Aurtengo kasuan, bata zein bestea babestearen alde egingo dugu kontsentsuzko adierazpen gisa. Eudelekoak, indarkeria matxistaren prebentzioan komunitateak daukan garrantzia zentratzen da. Nafarroako Berdintasun sareak aldiz, indarkeria digitala hartuko du ardatz.

- Argi utzi nahi dugu ordea, gure herri edo instituzioetan lanketa espezifiko batean murgilduak bagaude, edo aurtengo mozioa zentzu ezberdin batean joatea behar badugu, tokian tokiko errealitateei egokitzea oso egokia dela eta ez dela horregatik Eudeleko zein Berdintasun teknikariek proposatutako testua gure egin.

- Bestelako alderdiek haien kabuz haien proposamena erroldatuz gero, zirkular honetan agertzen diren proposamenekin zuzenketa bat egin beharko genuke. Besteak beste: 2026ko aurrekontuen prestakuntzan murgilduta gaude, eta beraz, berdintasun-arloaren aurrekontuetan igoerak aplikatzeko konpromisoa hartuko dugu.

Gure erakundeak berdintasun-sail bat baldin badu, baliabideak emateko eta, horrela, egonkortzeko eta indartzeko proposamen bat sartuko dugu. Giza baliabideak egonkorak izan ezik, lan baldintza duinak ere izan behar dituzte. Gure erakundeak ez badu berdintasun-sailik edota gizarte-zerbitzuekin batera baldin badago, sail hori sortzeko proposamena egingo dugu.

Gure antolamenduan indarkeria matxistaren aurkako erantzun publikorako edo arreta eta koordinaziorako protokolorik ez badugu, talde feministekin eta emakume-taldeekin batera egiteko proposatuko dugu.

Eta erakundeak protokoloen bat baldin badu, proposatuko dugu baliabideak aktibatzea jarraipen, ebaluazio eta berrikuspen egokiak egiteko, ikuspegi feminista eta parte hartzaile batetik.

Udalerrian parte-hartzerako gunerik ez badago, proposatuko dugu emakumeen etxe eta txokoei, ahalduzko-erakundeak, parte-hartze eraginkorrerako guneei eta udalerriko emakumeen elkarte zein kolektibo feministek inoiz eskatu izan duten parte-hartzerako edozein eremu motari laguntza ematea. Udalerri batzuetan espazio horiek murrizketak





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONDOZ
2025/12/15

SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/12/15

izan dituzte aurten. Horiek mantentzeko eskatu behar dugu indarkeria matxisten ahalduntzeko eta ekintza feminista kolektiborako funtsezko espacioak baitira:

- Mugimendu feministarekin eta emakumeen mugimenduekin egin beharreko lankidetzaz sartuko dugu nahitaez.
- Ez dugu inola ere onartuko "etxeko indarkeria" izendapena, eta ahal den neurrian ez dugu erabiliko "genero indarkeria" adiera, "indarkeria matxista" lehenetsiko dugu.

Azaroaren 25ean emakumeen kontrako indarkeria mota guztien aurka gaudela adierazteko eguna da, bizitza aske, seguru eta burujabeak eraikitzearen alde gaudelako.

Duela aste batzuk Zarautzen beste erailketa matxista baten berri izan genuen, gure babesa adierazi nahi diegu senide eta gertukoei. Erailketa honek berriz ere mahai ganean jartzen du indarkeria matxista lehen mailako arazoa dela gure gizartean, bi emakumetik batek indarkeria matxista pairatu du bere bizitzan zehar eta gazteen artean, sareetako indarkeria kasuek etengabe egiten dute gora, hau sistema patriarkal sendo baten ondorioa da. Analisi feministak azpimarratzen du sexu-generoa sistemaren egiturazko desparekotasunetan duela jatorria; izan ere, sistema horrek gizarte bitar eta patriarkalari eusten dio, botere-harreman sakonek markatua, eta maskulinoa eta heterosexuala indarkeriaz nagusitzen dira egunerokoan, bizitzaren esparru eta alderdi guztietan.

Zentzu honetan guztion ardura da aurre egitea eta esparru ezberdinetatik aritzea, Gobernantza Feminista oinarri.

Gizarte-eredua aldatu behar dugu indarkeria matxistaren adierazpen guztiak ikusarazteko, kausak aztertzeke eta horiek prebenitzeko eta ezabatzeke ekintza zehatz eta eraginkorrak abian jartzeko, baita gure egunerokoan horiek justifikatzen edo babesten dituzten erakundeak eta egiturak identifikatzeko ere. Erasoak salatzeaz gain, mundu justuago bat, bizigarriago bat, askea eraikitzeke lanean jarraitu behar dugu, honetan Mugimendu Feminista dugu eredu.

Orain, hitzetatik ekintzetara pasatzeko garaia da. Garrantzitsua da marko bat ezarriko duten legeak berritzea edo sortzea, are gehiago mugimendu feministak eskatutako norabidean egiten denean, baina hauek ez dute ezertarako balio, garapenerako aurrekontu eta baliabide teknikoak ezartzen ez badira.

Oso argi dugu indarkeria matxistari aurre egin ahal izateko ezinbestekoa dela berdintasun-politikei beharrezko giza baliabide eta baliabide tekniko eta ekonomikoak ematea, eta ildo horretan, uste dugu ikuspegi feministarekin lan egin behar dugula, egunero eta eremu guztietan.

Lehen mailako arazo sozial honen aurrean ainbat dira instuzioetatik garatu genezakeenak. Prebentziotik hasita erreparazioraino.

Euskal Herriko Emakumeon Mundu Martxak herri eta auzoetan indarkeria matxistari aurre egiteko ditugun baliabide, tresna eta aukeren inguruan abiatu duen hausnarketa prozesua aintzat hartuta eta honekin lerrotatuta, gurean ere protokoloen inguruko hausnarketa prozesu bat abitzearen beharra dagoela deritzogu, protokoloen egokitzapen eta hobekuntza bilatzeko, hala nola hauen gauzapenerako behar diren baliabideak eskaintzeko.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORONQZ
2025/12/15



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/12/15

Deskoordinazioak eta ardura ez hartzeak, babesaren kontzeptua eta emakumeengan jartzen den arduraren zama nabarmendu ditu. Indarkeria Matxistaren ardura ezin zaio inoiz biktima den emakumeari jarri.

Protokolo hauek elkarlanean eta koordinazioan garatu behar dira, eraso jasandako pertsonaren beharrak zentroan jarritik eta benetako erreparazioa bilatuz, berriz biktimizatzea ekidinez. Erantzuna integrala behar du izan. Prebentzioan eta heziketan egiten dena baino gehiago egin behar da. Eta dudarik gabe, aurrekontuetan isla zuzena izan behar du hitzez aldarrikatzen den orok.

AKORDIORAKO PUNTUAK

Aurretik aipatu bezala akordiora eraman genitzaizkeen puntuak herrian martxan ditugun lanketekin lotuta joan daitezke edota zirkular honen hasieran zuzenketa moduan aipatzen diren ideian ildotik:

2026ko aurrekontuen prestakuntzan murgilduta gaude, eta beraz, berdintasun-arloaren aurrekontuetan igoerak aplikatzeko konpromisoa hartuko dugu.

Gure erakundeak berdintasun-sail bat baldin badu, baliabideak emateko eta, horrela, egonkortzeko eta indartzeko proposamen bat sartuko dugu. Giza baliabideak egonkorak izan ezik, lan baldintza duinak ere izan behar dituzte. Gure erakundeak ez badu berdintasun-sailik edota gizarte-zerbitzuekin batera baldin badago, sail hori sortzeko proposamena egingo dugu.

Gure antolamenduan indarkeria matxistaren aurkako erantzun publikorako edo arreta eta koordinaziorako protokolorik ez badugu, talde feministekin eta emakume-taldeekin batera egiteko proposatuko dugu.

Eta erakundeak protokoloren bat baldin badu, proposatuko dugu baliabideak aktibatzea jarraipen, ebaluazio eta berrikuspen egokiak egiteko, ikuspegi feminista eta parte hartzaile batetik.

Udalerrian parte-hartzerako gunerik ez badago, proposatuko dugu emakumeen etxe eta txokoei, ahaldundze-eskolei, parte-hartze eraginkorrerako guneei eta udalerriko emakumeen elkarte zein kolektibo feministek inoiz eskatu izan duten parte-hartzerako edozein eremu motari laguntza ematea, indarkeria matxisten aurrean ahaldundzeko eta ekintza feminista kolektiborako funtsezko espazioak baitira.

Mugimendu feministarekin eta emakumeen mugimenduekin egin beharreko lankidetzak sartuko dugu nahitaez.

Azaroaren 25ean Mugimendu Feministak deitutako mobilizaioekin bat egingen dugu.

Bilidutakoek irakurri eta transkribatutako mozioa onartzen dute aho batez.





SINATZAILEA

Basaburuko alkatea
SANTOS ETXEGIA ORIONOZ
2025/12/15



SINATZAILEA

La secretaria de Basaburua
LUCIA BELOQUI IRIARTE
2025/12/15

10. - Batzordeen informazioa.

Kultura eta Euskara Batzordea. Iker Isiegasek ematen du informazioa.

Bertso saioaren antolaketa lanekin ari dira, aurreikusitako datan ez da burutuko atzeratuko da. Punpairez ikuskizuna Urriaren 231ean Apeztegiberriko bigarren pisuko gelan egingo da.

Hezkuntza Batzordea. Alaia Etayok ematen du informazioa.

Aralar Musika eskolako bilera izan da eta bertan 2026 aurrekontua onartu, udalak 13.000 euro inguru ordainduko ditu Basaburutik 8 ikasle joaten direlarik.

Oihanzabal eskolako irakasleekin bilera izan da, eskatutako gela garbitzea adostu zen bertan eta berogailua jartzea.

Guraso elkartetik Baso Babeslearen inguruan proiektu bat garatuko dute dirulaguntza programa batean aurkezteko.

Ogasun Batzordea. Mikaela Elizalde ematen du informazioa.

Hasiera batez onartu den kontribuzioko hobarien ordenantzaren lanketarekin dabil batzordea, aztertzen ari dira behin betiko hobariak, ordenantzaren behin betiko onespenerako.

11.- Informazio orokorra. Alkateak ematen du:

- Gaztain azoka urriaren 31ik azaroraren 2ra burutuko da. 2an azoka ibiltaria ospatuko da eta beste egunetan hainbat tailer eta mahai inguruan.
- Nafar Gobernuak Garraio Arduradunarekin bilera izan du eta hurrengo aurrekontuan partida bat onartuko dute.
- Eguneko egoitza ezagutarazteko ate irekien jardunaldi bat egingo da abenduaren 16an.
- Azaroaren 22 eta 23a eta 29 eta 30ean pintxo lehiaketa burutuko da, Orokieta, Aizarotz eta Igoako ostatuetan eta Apeztegiberriko dendan.

12. Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez 20:05 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du

